

# UEMA: 100 udal eta hamaika gehiago

## Ekitaldia • 2-3

Erakunde publikoen, euskalgintzaren eta gizartearen babesa

## Egitasmoak • 4-5

Hezkuntza, ikerketak, udala, udalerrriak, aisia eta kulturartekotasuna

## Egoera • 6-7

Udalerri euskaldunak gero eta gehiago, baina arnaguneak ahultzen

**berria**

2023ko martxoaren 24a

## Sustraietatik adarretara, euskarari bidea zabaltzen


Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak 100 udal baino gehiago izango ditu bihar, eta ekitaldi bat egingo du Azpeitian, udalerri euskaldunen ekarpena eta garrantzia nabarmentzeko.

**euskaraz  
gara**





UEMA-N DAUDEN UDALERRIAK



ITURRIA: UEMA

Sortu zenetik, lan handia egin du UEMAK udalak euskalduntzen, eta, azken urteotan, udalerriak euskalduntzeko ere hainbat ildo ditu abian; hori hala, herritarren kontzientziazioan eragitea du xede.

# Euskarak ehundutako sarea





**S**endodago UEMA erakundea: bihar 101 udal izatera helduko da, eta ekitaldia egingo du Azpeitian.

Erakunde publikoen, euskalgintzaren eta jendartearen babes zabala izango du, azken urteotan egindako lanaren eta izandako bidelagunen erakusgarri. Hasieratik, ordea, ez da horrela izan. Euskararen aldeko herri mugimendutik sortu zen UEMA, euskaraz jardun nahi zuten udalak elkartuta, eta epaitegien oztopo, auzi eta aurkako epaien artean egin behar izan zuen bidea, euskaraz aritzeko eskubidea defendatuz.

19 udal sortu zuten UEMA, 1991ko maiatzaren 5ean Aizarnazabalen egindako batzarrean. Abaltzisketa, Aizarnazabal, Altzo, Arbizu, Aulesti, Baliarrain, Dima, Errezil, Etxebarria, Gatika, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizar-tza, Munitibar, Muxika, Nabarniz, Orendain, Urdiain eta Zaldibia izan ziren lehen 19 udal horiek. Harrezkero, Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da. Tamainaz eta izaeraz askotarikoak dira mankomunitatea osatzen duten udalak, baina guztiek dute elkartzeko dituen zerbaite: udalerrri euskaldunak dira guztiak. Zehazki, UEMAko kide diren herri guztietan, biztanleen %70etik gora euskaldunak dira.

Lehenengo 19 udal haiek udalerrri txikiak ziren, ez zuten baliabide handirik, eta UEMA hasi zitzaientzen udala euskalduntzeko behar zituzten baliabideak eskaintzen eta ematen. Denborak aurrera egin ahala, udal berriak gehituz joan ziren, eta arazo administratiboak eta oztopo juridikoak ere heldu ziren. 1995ean, Espainiako Auzitegi Gorenak ez-legezkotzat jo zituen UEMAren estatutuak, eta mankomunitateak, beraz, estatutuak berri eta egokitu behar izan zituen, betiere



Guztien artean, UEMA dauden udalerrri euskaldunek 305.000 biztanleko lurgunea osatzen dute. UEMA

hasierako helburuei, funtzionamenduari eta lanari eutsita.

Oztopoak oztopo, helegiteei eta epaiei aurre egin, eta euskaraz lanean jarraitzea erabaki zuten udalok.

Hasieran dena egiteko aurkitu zuten, eta behar horri erantzun zion UEMAk: inprimakiak, aktak, txostenak, kartelak, errotuluak,

**UEMAko kide diren herri guztietan, biztanleen %70 baino gehiago euskaldunak dira**

**Azken urteotan, handitzen ari da ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea**

irudiak eta abar euskaraz eskainiz, eta euskararen erabilera planak eginez udalei. Ordudanik, 32 urteko bidean, eremu instituzionalean erreferentzia bilakatu da UEMA, euskalduntzeari dagokionez. Izan

ere, euskaraz funtzionatu nahi dutela eta funtziona daitekeela erakutsi dute kide diren udalok.

Duela zenbait urte, ordea, mankomunitateak ondorioztatu zuten udalak euskalduntzearekin batera udalerrriak euskalduntzea ere giltzarria zela. Horretarako herri-tarren kontzientziarioan eragitea ezinbestekoa dela ohartuta, hainbat ildo eta zerbitzu berri abiarazi zituen. Besteak beste, eskola guztietarako hezkuntza proiektua, hizkuntza ekologiaren eta euskararen arnaguneei buruzkoa, herritarrek ahalduzko tailerrak eta kanpainak, eta zerbitzu sektorea euskalduntzeko baliabideak. Azken urteotan, gainera, euskararen ezagutzak gora egin duen heinean, ugaritu egin dira udalerrri euskaldunak, baina asko aldatu da euskaldunen soslai soziolinguistikoa, eta handitzen ari da ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea. Horretan eragiteko, giltzarria da herritarren kontzientzia piztea, euskararen egoera ezagutaraziz.

Hasierako 19 udal horiek 101 izango dira bihurtik aurrera. Herri txikiak ez ezik, tartean dira Zarautz, Hernani, Tolosa, Bergara, Bermeo, Azpeitia eta Oñati ere, besteak beste. Guztien artean, zehazki, 305.000 biztanleko lurgunea osatzen dute UEMA dauden udalerrri euskaldunek, eta, hain zuzen, lurgune horrek euskararentzat duen funtzio estrategikoa ikusarazten lagundu du UEMAk, baita euskararen

arnaguneei babesten eta sendotzen ere.

Arnaguneeen garrantzia ikusaraztea eta aitortzea, zehazki, UEMAren oinarrietako bat da. Urte askoan egindako lanak eman du uzta, eta, gaur egun, euskalgintzak ez ezik erakunde publikoek ere bat egiten dute UEMArekin; horrek nabarmentzen du udalerrri euskaldunak eta arnaguneei funtsezkoak direla euskararen biziberritzean.



**ITSASONDOKO UDALA**

**Itsasondoko udala ere, euskarari arnasa ematen!**



**Deban ere, euskaraz**





UEMAk, eragile politikoa izateaz gain, zerbitzua eskaintzen die mankomunitateko kide diren udalei. Gertu-gertutik erreparatzen dio udalerrri euskaldunen eta arnaguneen bilakaerari, eta horren araberako egitasmoak diseinatzen eta sustatzen ditu udalerrietan.

## Zer egiten du UEMAk?

**A**dministrazioa euskalduntzeko zerbitzuak, udalerrriak euskalduntzekoak, herritarrak ahalduntzekoak eta udalerrriaren zaintzari eta garapenari dagozkionak ere eskaintzen ditu. Hiru ildo estrategikoren arabera kokatzen dira: batetik, udalerrian euskaraz bizitzeko hutsuneak gainditzea eta erabilera sustatzea; bestetik, udalerrri euskaldunetako herritarrak sentsibilizatzea eta ahalduntzea, arnaguneen garrantziaz ohartu daitezzen, hizkuntza ohituratan euskararen aldeko hautua egiteko; azkenik, udalerrri euskaldunen eta arnaguneen zaintza eta garapena.



Eider Amundarain, Eñaut Agirre, Zineb el-Ghaouti eta Karmele Perez Huheziko irakaslea. FOKU



Iaz Salto! udalekuan parte hartu zuten hainbat gazte, ibilaldietako batean. UEMA

### Kulturartekotasuna

Euskara eta kulturartekotasuna lantzeko proiektu aitzindaria abiarazi zuen UEMAk Zaldibian, 2021eko udaberrian. UEMAko kide diren udalerrietan, Zaldibiak du migrazio tasarik handienetakoa: %14. Eskolan sumatzen da bereziki aldaketa, hiru ikasletik batek jatorri atzeritarreko gurasoak baititu.

Ikasle horiek euskaraz hezteko erronkari erantzuteko eta familiekin harreman egokia izateko sortu zen proiektua. Ekimenak eragin handia izan du Zaldibian, eta herritarren arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak asko aldatu ditu. Aurten beste hamar eskolara zabalduko dute ekimena.

### Aisia

Hezkuntza arautuaren mugak gainditu, eta udalerrri euskaldunetako gazteentzako topaketak eta Salto! udalekuak antolatu ditu UEMAk azken urteotan. Euskaraz bizi diren gazteek inertziatik kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da helburua. Aurten, 120 lagun-

tzako lekua izango da, eta Orozkotik Dimarako bidea egingo dute gazteek.

Hezitzaileak formatzeko, UEMAk eta Oinherri aisialdiko hezitzaileentzako tailer bateratua sortu zuten iaz, lehen aldiz, eta udalerrri euskaldunetan 40 saio eman zituzten. Arrakasta ikusita, formakuntza saioak beste alor batzuetara zabaltzeko eskaintza egin zuten UEMAk udalei, eta horrela heldu dira aurten lehen aldiz saio berriak ere.



  
Astigarragako Udala

**“Zerk egin du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izaera berezia? Zerk egiten du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? EUSKARAK EZ BESTEK!”**

**Txillardegi**



**BAKIO** udala  UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA






Besteak beste, haurren artean gaztelania gero eta goizago zergatik hedatzen den ikertu du UEMAK. UEMA



UEMAko teknikari Irati Odriozola, LHko haurrekin eta gurasoekin lantzen duten Ispiluari Begira tailerlean, Alegiako herri eskolan. UEMA



Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak euskaraz izan daitezzen baliabideak eskaintzen dizkie UEMAK. UROLA KOSTAKO HITZA



Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu UEMAK, eta hainbat kanpaina bideratzen ditu. UEMA

## Ikerketak

Udalerrri euskaldunen zaintzan eta garapenean eragiteko, UEMARI ezinbestekoa iruditu zaio herrietako errealitatea datuetara ekartzea, diagnostikoa egokia izan dadin, gero neurriak hartu ahal izateko. Besteak beste, udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa, euskararen kale erabilera, helduen euskalduntzeari buruzko datuak edota gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketa dira UEMAK aztertu edo egin dituenak azken hilabeteotan. Horiek Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko batzordeetan eta lan-saioetan aurkeztu dizkie alderdiei, eta ondorio garrantzitsuak ere hizpidera ekarri.

Udalerrri euskaldunen errealitatea aztertzeko asmoz antolatzen du Iñaki Arregi ikerketa beka ere UEMAK, bi urtean behin.

## Hezkuntza

Herritarren kontzientziazioan eragiteko ildo-en artean, Hedatu da UEMAREN ekimen nabarmenena, hezkuntza komunitatean eragiteko sortutako proiektu integrala: euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektua. Gazteen artean hizkuntza ekologiaren diskurtsoa zabaltzea eta arnaguneeen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren xedea, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain.

Hasieran, ikasleentzako unitate didaktikoak sortu zituen UEMAK; unitate bakoitzak du material osagarria, gazteentzat erreferenteak diren musikari, aktore, kirolari, bertsolari edota telebistako aurkezleen bideoekin, PDFekin eta fitxekin. Azken urteotan, hezkuntza proiektua integrala izatea zaindu du, gurasoen eta eskolatik kanpoko hezitzaileen formakuntzan ere arreta jarrita.

## Udalak

UEMARENtzat oso garrantzitsua da udala eredugarri izatea euskararen normalizazio prozesuan; bere gain hartzen du udal bakoitzaren egoeraren diagnostika egitea, euskararen erabilera plana diseinatzea eta plan horren jarraipena egitea. Hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie udalei: hautetsientzako formakuntza eta sentsibilizazio saioak, langileentzako sentsibilizazio saioak eta hizkuntza-trebakuntza ikastaroak, dokumentuen estandarizazioa, hornitzaileekin euskaraz aritzeko laguntza, kontratazio irizpideen inguruko aholkularitza, aholkularitza juridikoa eta itzulpen zerbitzua, beste askoren artean. Euskara zerbitzurik ez dagoen udalengan, UEMAK osotasunean hartzen du planak diseinatzeko eta jarraipena egiteko ardura. Gainerako udalengan, berriz, Euskara Zerbitzuekin elkarlanean egiten du hori.

## Udalerriak

UEMAK, bertako kide diren udalerrri guztietan, egoeraren diagnostikoa egiten du, eta unean-unean dagozkion eguneraketak egiten zaizkio. Horren arabera, ondoren, udalerrira begirako plangintza egiten da. Plangintza horiek, udalerrriaren arabera, euskalgintzarekin, udalaren euskara zerbitzuekin edo dagokionarekin batera diseinatu dira. Udalerrria euskalduntzeko zerbitzuen artean, besteak beste, merkataritza, ostalaritza eta oro har zerbitzuen sektorea euskalduntzeko egiten diren kanpainak eta eskaintzen diren baliabideak nabarmentzen dira. Izan ere, dendak, tabernak eta jatetxeak herriaren erakusleihoak diren heinean, kartelak, menuak eta hizkuntza paisaia euskaraz agertzea ezinbestekoa da herriaren egoera soziolinguistikoa egoki islatu dezaten, desitxuratu beharrean.



## 100 udal eta hamaika gehiago

ZORIONAK UEMA 101 ETA GEHIAGO IZANGO GARA ETORKIZUNA EUSKARATIK ETA EUSKARAZ BIZI!





## UEMA: 100 udal eta hamaika gehiago



Errealitate soziolinguistikoa aldatu egin da, eta erabilerari eustea dute orain erronka. G.RUBIO / FOKU

Udalerri euskaldunen ezaugarriak nabarmen aldatu dira: gero eta udalerri euskaldun gehiago dago, baina arnaguneak ahultzen ari dira. Horrek lan ildoak moldarazi dizkio UEMari.

## Egoera berria, neurri berriak

**U**dalerri euskaldunak aipatzean egoera idiliko bat irudikatu ohi da maiz: erabat euskaraz bizi diren lekuak. Euskara eremu horietan dago sendoen, bai: euskaraz badakite herritar gehienek, lehen hizkuntza euskara dute gehienek, eta etxeko eta kaleko hizkuntza nagusia euskara da. Baina UEMA sortu zenetik aldaketa handiak gertatu dira: batetik,

aurrerabidea, nabarmen hazi baita udalerri euskaldunen multzoa, herri gehiagok gainditu dutelako %70eko ezagutza tasa; bestetik, ordea, atzerakada, urteotan galarajasan baitute udalerririk euskaldunenek, arnaguneek.

Gaur egun, udalerri euskaldun gehienak UEMako kide dira: Hego Euskal Herrian, zentsuko datuen arabera, 165 udalerri euskaldun daude, eta 101 dira mankomunitateko kide, bostetik hiru.

Hazkundearekin batera, aldaketak iritsi dira. Batetik, urteotan UEMAn egon diren udalerritan aldaketa handiak gertatu direlako: arnaguneak ziren mankomunitatea eratu zuten udalerriak, eta guztietan egin dute behera adierazle soziolinguistikoek. Bestetik, azken urteotan UEMAn sartu diren udalerririk gehienak ez direlako arnaguneak, erdararen presentzia adierazgarria duten udalerririk euskaldunak baizik.

Udalerriz udalerriko zentsuetatik egin daiteke udalerririk euskaldunen bilakaerari buruzko argazki xehea. Datu horiek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerririk dagozkien; Nafarroan, 2001etik ez dute zentsuko daturik eman herriz herri. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez da halako daturik.

### EZAGUTZA

Euskaraz badakite udalerririk euskaldunetako biztanle gehienek: %73k. Gainerakoei dagokienez, paretsu dabilta euskara ulertu soilik egiten dutenak (%13) eta ulertu ere egiten ez dutenak (%14). Bilakaerari erreparatuta, euskaldunen ehuneko antzekoa da azken urteetan, baina bi aldeko txanpona dago azpian: udalerririk euskaldunen multzora sartu berri diren herrietan gora egiten ari da euskararen ezagutza pixkanaka; arnaguneetan, berriz, behera.

Adinaren ikuspegitik, euskararen ezagutza unibertsalizaziora iristear dago adin talde gazteetan –ezagutza: besterik da zein hizkuntzatan moldatzen diren errazago–, baina eragiteko tarte handia dago helduen euskalduntzean: proportzioan, udalerririk euskaldunetako beste leku batzuetan baino herritar gehiago ari dira



**Irurako udala**

San Migel plaza, 1 - 20271  
udala@irura.eus  
www.irura.eus



euskaltegian, baina matrikulazioen jaitsiera nabari da horietan ere.

## LEHEN HIZKUNTZA

Etxean euskara jaso dute udalerrri euskaldunetako biztanle gehienek (%53), baina ehunekoak murrizten ari da. Euskal Herri osoan ari da hori gertatzen, baina nabarmenagoa da udalerrri euskaldunetan. Beherakadaren neurria erakusten duten bi datu: batetik, UEMA sortuzenean, 1991n, 52 udalerritan euskara zuten lehen hizkuntza herritarren %90ek baino gehiagok, baina gaur egun ez dago udalerririk portzentaje horietara iristen denik; bestetik, azken 30 urteetan udalerrri euskaldun guzti-guztietan murriztu da etxean euskara jaso dutenen ehunekoak.

Galera horren oinarrian ez dago transmisioaren hausturarik: euskaraz dakiten gurasoek beste eremu batzuetan baino hein handiagoan transmititzen dute euskara udalerrri euskaldunetan. Baina, biztanle mugimenduen ondorioz, bestelako hiztun profilak indartzen ari dira, eta, beraz, ezinbestekoa da transmisioaren eta etxeko hizkuntza ohituren gaia lantzea, bereziki gurasoekin.

## ERABILERA


Etxeko erabilerak beherakada handia izan du, 13 puntukoa, eta, udalerrri euskaldunak oro har harturik, erdararen pertsuan dago euskara etxean. Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea nabarmen handitu da: 1991n, %72ko ezagutzarekin, %54ko erabilera; 2021ean, %73ko ezagutzarekin, %41ekoa. Diferentzia hori ulertzeko, kontuan hartu behar da nolako aldaketa gertatu den udalerrri euskaldunetako etxeetan: biztanleen bestelako hizkuntza soslaiak, erdararen sarbide gero eta handiagoa... Aldaketa sozial handiak izan dira urte gutxiren buruan, eta nabarmen eragin dute udalerrri euskaldunetan, batik bat arnaguneetan.

Jaitsiera horri aurre egiteko, bereziki bi arlotan ari da eragiten UEMA. Batetik, hiztunetan, haien ahalduntzea landuz eta udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan daukaten garrantziaz ohartaraziz. Bestetik, udalerrri euskaldunen eta arnaguneen garapena bultzatuz: urte hauetan guztietan izandako galeran zerkusua izan dute hizkuntzatik haragoko askotariko faktoreek ere, eta ezinbestekoa da horietan eragitea, udalerrri euskaldunak eta arnaguneak indartzeko eta babesteko zeharkako neurriak hartuz, euskararen normalizazioan itsasargi izan daitezen aurrerantzean ere.

## DATU SOZIOLINGUISTIKOAK


### Ezagutza

● Euskaldunak ● la euskaldunak ● Erdaldunak




### Lehen hizkuntza

● Euskara ● Biak ● Gaztelania ● Beste bat



### Etxeko erabilera

● Euskara ● Biak ● Gaztelania ● Beste bat



ITURRIA: EUSTAT, BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUA

Hasiera-hasieratik alkarregaz sarea sendotzen!

IKAZTEGIETAKO UDALA

Gu ere, UEMA gara.  
Gu ere euskaraz gara.

Berastegi UDALA

Berastegiko udala ere, UEMAekin batera, bidea zabaltzen.

MUXIKAKO UDALA

Muxika, Goroizika eta Ibaruriko herriak "Hiru herri udalerrri bat"

Muxika, Ibarurri eta Goroizikan euskaraz bizi gara

ADUNAko udala

Bizi euskara(z)

AIZARNAZABALGO UDALA

Gu ere, euskaraz gara!





Azpeitia  
Denontzat



**Azpeitia euskara da**

**Ehun aukera  
eta hamaika gehiago  
euskarari  
arnasa emateko!**